

BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

4949

HUTSEN ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2016ko azaroaren 10ekoa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, ehun eta hogeit hamar milioi euroko Euskadiko zor publikoa jaulkitzeko eta eragiketa horren ezaugarriak zehazteko dena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikulua xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurkitzearen Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada

Era horretako hutsak aurkitu dira, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2016ko azaroaren 10eko Aginduan, non ehun eta hogeit hamar milioi euroko Euskadiko zor publikoa jaulkitzeko eta eragiketa horren ezaugarriak zehazten diren (2016ko azaroaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 217 zk.). Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

2. artikulua h) puntuan, 2016/4851 (2/1) orrialdean.

Honako hau dioen lekuan:

«Amortizazio data: 2016ko azaroaren 16a.»

Honela esan behar du:

«Amortizazio data: 2018ko azaroaren 16a.»